ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOAREN SARE SOZIALEN ETA KOMUNITATE DIGITALAREN ESTRATEGIA ETA KUDEAKETA ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA QUESTA DE EUSKADI SA sozietateak kontratista bat hautatzea, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen **Karatularen (aurrerantzean, Karatula) 1. puntuan** adierazitako zerbitzuaz arduratu dadin.

Aipatutako zerbitzua egiteko, Agiri hau, Klimatizazio Sistema Aldatzeko Proiektua (aurrerantzean, Aldaketa Proiektua edo Proiektua), zeinetan txostena, baldintza-agiria eta planoak baitaude, eta kontratistaren proposamena beteko dira.

Kontratuaren atalak banaka eta lotetan zatituta egikaritzea aurreikusten denerako, **Karatularen 1. puntuan** alderdi hauek azaltzen dira: kontratua zatitzeko lote zehatzak; hala badagokio, lizitatzaile berak zenbat lotetarako aurkez dezakeen eskaintza; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari zenbat lote adjudika dakizkiokeen; kasu bakoitzean zehazten diren alderdiak.

Kontratuaren CPV kodea **Karatularen 1. puntuan** dago ezarrita.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA da (aurrerantzean, BALENCIAGA edo, bestela, erakunde kontratatzailea).

Kontratazio-organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazitakoa da; hark, hala badagokio, eta aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauen arabera, kontratuarekin lotutako jarduketa zehatzak egiteko ahalmena eman diezaieke egokitzat jotzen dituen pertsonei.

3. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko zaio kalitate-prezio erlaziorik hoberena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzaileari, Agiri honetan ezarritako adjudikazio-

irizpideen arabera (aurrerantzean, eskaintzarik hoberena).

4. ALDAERAK

Hala badagokio, **Karatularen 3. puntuan** egongo da adierazita lizitatzaileek aldaerak eskaintzeko aukera.

Aldaerak onartzen badira, **Karatularen 3. puntuan** ezarriko dira horien gutxieneko baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak, baita kontratuaren xedearekin duten lotura ere.

5. KONTRATUAREN DOKUMENTAZIOA

Kontratu izaera izango dute, adjudikazioaren ondoren formalizatuko den kontratuaz gain, dokumentu hauek:

- Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta bere Karatulak.
- Aldaketa Proiektuak, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren Karatularekin kontraesanean ez dagoen guztian.
- Adjudikaziodunak aurkezten duen eskaintzak.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazitako gainerako dokumentuek.

Adjudikaziodunak sinatu beharko ditu agiri horiek, haiekin ados dagoela adierazteko, kontratua formalizatzeko ekitaldian.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratua entregatzeko epea eta tokia **Karatularen 5. puntuan** ezarrita dagoena izango da.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **Karatularen 6.1 puntuan** dago adierazita.

Bestalde, kontratuaren prezioa ere **Karatularen 6.1 puntuan** dago zehaztuta.

Kontratuaren prezio horrek barne hartuko ditu kontratua gauzatzeko behar diren kostu guztiak, besteak beste, aipatzearren baina mugatzeko asmorik gabe, hauek:

- Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, Agiri honetan eta Aldaketa Proiektuan jasotakoari jarraikiz, eta *a posteriori* ez da onartuko aldez aurretik azken prezioan kontuan hartu behar ziren kontzeptuengatik fakturatzea.

- Kontratua gauzatzeari berezkoak zaizkion kontzeptu guztiak eta zerbitzua emateko erabilitako langileekin lotutako gastu guztiak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lanaldiak, baja nahiz gaixotasuneko ordezkapenak, banakako istripu-aseguruak, etab.), bai eta zergak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

- Horniduraren xede diren ondasunak tokian entregatzeko, hara eramateko eta garraiatzeko gastuak.

- Kontratistak kontratua gauzatzeko behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipamendu, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.

- **Karatularen 6.1 puntuan** aipatzen diren beste guztiak.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikoan sartzen dituenak (aurrerantzean, SPKL) bere 101. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia da **Karatularen 6.2 puntuan** adierazitako zenbatekoa.

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez dio konpromiso jakin bat sortzen erakunde kontratatzaileari.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Erakunde kontratatzailek **Karatularen 7. klausulan** adierazita dagoen moduan ordainduko du prezioa.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen 8. puntuan ezarritakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean honako hauek argitaratuko dira:

a) Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.

b) Kontratuaren adjudikazioaren iragarkia.

c) Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.

d) SPKLren 63. artikuluan zerrendatutako gainerako informazioa.

Erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilerako sarbidea webgune honen bidez egingo da: http://www.contratacion.euskadi.eus

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, eta berme horren zenbatekoa **Karatularen 9. puntuan** adierazitakoa izango da.

Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko berme horren eraketa 10 egun balioduneko epean egiaztatu beharko du, Kontratazio Organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Behin betiko berme horrek SPKLren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuak beteko ditu.

Bermea SPKLren 108. artikuluan jasotako moduetako batean eratu ahal izango da, eta ez da beharrezkoa izango Gordailuen Kutxa Orokorrean eratzea.

Abal moduan ematen bada, Agiri honetan **I. Eranskin** gisa jasotako ereduari jarraituko dio.

Bermea eratu dela egiaztatzeko, bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dira.

Kontratistari eska dakizkiokeen zigor edo kalte ordainak behin betiko bermearen gainean gauzatzen badira, adjudikaziodunak berme hori birjarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, gauzatu direnetik hamabost egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Baldin eta, kontratua aldatzearen ondorioz, berorren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea egokitu beharko du, aldatutako prezio berriarekin behar den proportzioa mantendu dezan. Kontratistak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea aldatzeko, erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Bermea itzultzeko, SPKLren 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bermealdia amaitu eta kontratistak kontratuan ezarritako betebehar guztiak bete ondoren.

Bermea erakunde kontratatzaileak aldeko txostena eman ondoren itzuliko da.

Klausula honetan jaso ez den guztirako, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Honako hauek kontratatu dezakete erakunde kontratatzailearekin: jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridiko espainiar nahiz atzerrikoek, baldin eta kontratazioa debekatuta ez badute eta kaudimena dutela frogatzen badute.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak emateko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodun izateko, beharrezkoa da kontratuaren prestazioak haren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituen helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan egotea.

Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa izenpetu duten estatuetako enpresek erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko ahalmena izango dute baldin eta, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, dena delako prestazioa emateko gaituta badaude, eta SPKLren 67. artikuluan jasotakoa aplikatu beharko da.

Baldin eta estatu batek dena delako prestazioa gauzatzeko baimen bereziren bat izatea edo erakunde jakin batekoak izatea eskatzen badie bertan ezarritako enpresei, enpresak baldintza hori betetzen duela egiaztatu beharko du.

Ezertan eragotzi gabe Espainiak nazioarteko akordioen ondorioz dituen betebeharrak, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa izenpetu duten estatuetakoak ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko erakundeen pareko kontratazioetan parte hartzea, funtsari dagokionez modu berean. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak prestatuko du, eta aurkezten den dokumentazioari erantsiko zaio.

Prestazio hori emateko aldi baterako osatzen diren enpresari elkarteek erakunde kontratatzailearekin kontratatu ahal izango dute; ez da beharrezkoa izango elkarteok eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua adjudikatzen zaien arte, eta SPKLren 69. artikuluan jasotakoa aplikatu beharko da.

Lizitatzaileek **Karatularen 10. puntuan** ezarritako ekonomia- eta finantza-kaudimeneko eta gaitasun profesional edo teknikoko gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.

Hala badagokio, lizitatzaileek gutxienez **Karatularen 10. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxiki beharko dituzte kontratuaren egikaritzera.

Horrez gain, lizitatzaileek **Karatularen 10. puntuan** adierazten diren baldintza espezifikoak bete beharko dituzte.

Baldin eta lizitatzaileei eskatzen bazaie kontratuaren egikaritzeari giza baliabide eta baliabide material jakin batzuk atxikitzeko konpromisoa hartzeko, konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211.1. f) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, eta horiek ez betetzea kontratua amaitzeko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

Kontratua amaitu ordez, baldin eta kontratistak alde bakarretik aldatzen badu kontratua egikaritzeko atxikitako pertsona, langile hori berea edo azpikontratatua den gorabehera, erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du atxikitako pertsona hori esleitutako lanean berehala jar dezan eskatzeko edo, osterantzean, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezinezkoa bada, prestakuntza eta esperientzia bera duen langile batez berehala ordezteko. Pertsona horrek erakunde kontratatzailearen berariazko baimena izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu ahal izango dira, horiekin dituzten loturen izaera juridikoa gorabehera, baldin eta egiaztatzen badute kontratuaren indarraldi osoan kaudimen eta/edo baliabide horiek

izango dituztela, eta erakunde hori ez dagoela kontratatzeko debeku batean sartuta.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzaileek berariaz adierazi beharko dute 1. gutun-azaleko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, EKABaren II. zatiko C atalean).

Horrez gain, baldin eta eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, beharrezkoak diren baliabideak izango dituela frogatu beharko du eta, horretarako, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du (**II. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera prestatua).

Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak oinarri hartu dituen erakundeek konpromiso hori notario baten aurrean idatzi beharko dute, kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, eta adierazpen hauek jaso beharko dituzte: lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintza guztiak ezagutzen dituela; aipatutako kaudimena eta/edo atxiki beharreko baliabideak dituela, eta hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko du (17. Klausulan ezarritako moduan); eta lizitatzailea adjudikaziodun izanez gero, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak haren esku jartzeko borondate ezeztaezina duela (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta, eta erakunde kontratatzaileak berariaz baimendu beharko du hura ordeztu edo aldatzea). Idazki hori aurkezteak esan nahi du erakunde kontratatzaileak konpromiso hori onartzen duela, lizitatzailea adjudikaziodun izanez gero.

Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak aurkeztu beharko du konpromiso hori, 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Klausula honetan aipatzen diren kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta kontratua burutzen den unean iraun beharko dute.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria lizitazioaren iragarkia argitaratzen den egunetik aurrera eta erakunde kontratatzailearen kontratatzaile profilean proposamenak aurkezteko epe osoan egongo dira eskuragarri.

13.2. AURKEZTEKO BIDEAK

Proposamenak aurkezteko, bitarteko elektronikoak erabiliko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunei jarraikiz.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezkoak diren informazioa eta zehaztapen teknikoak, barne hartuta zifratzea eta dataren baliozkotzea, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren webgunean daude, helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus

Eskaintzen bitarteko elektronikozko bidalketa bi fasetan egin ahal izango da: lehenengo, eskaintzaren hatz-marka elektronikoa helarazi beharko da (sinadura hori jasotzearekin egintzat hartuko da eskaintzearen aurkezpena ondorio guztietarako), eta, gero, eskaintza bera gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren bidalketa hori ez bada adierazitako epean egiten, eskaintza atzera bota dela ulertuko da.

Eskaintzaren hatz-marka elektronikoa da datu multzo bat, zeina sortzeko prozesuak bermatzen baitu zalantzarik gabe daudela lotuta eskaintzaren edukiarekin, eta aukera ematen baitu haren edukian egon daitezkeen aldaketak detektatzeko, haren integritatea bermatze aldera. Espedientean sartu beharreko dokumentuen kopia elektronikoek nahitaez bete beharko dute administrazio-prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen legerian horretarako ezarritako guztia, eta horretan ezarritako ondorioak izango dituzte.

13.3. FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenek Agiri honetan eta haren Karatulan, Aldaketa Proiektuan eta gainerako kontratuzko agirietan ezarritakoa bete beharko dute, eta haiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen duela klausula guztien edukia, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe.

Fitxategi elektroniko bakoitzean ondoren adieraziko diren dokumentuak sartuko dira, eta barnean dauden dokumentuen zerrenda zenbakitu bat izango du.

Fitxategi elektronikoak izan arren, izen hauek izango dituzte: 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala.

1. gutun-azala. «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO AGIRIAK»

Lizitatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, Europako Kontratazio Agiri Bakarreko (aurrerantzean, EKAB) inprimakiekin bat datorrena, Agiri honi **III. Eranskin** gisa erantsitakoa, zeina honela beteko baita:

   a) EKABa betetzeko, ezinbestean bete beharko dira Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren (Europako kontratazio-dokumentu bakarraren inprimaki normalizatua ezartzen duena) I. Eranskinean ezarritako jarraibideak.

   b) EKABaren «IV. Zatia: hautatzeko irizpideak» zatiari dagokionez, lizitatzaileek A atala soilik bete beharko dute: «Hautatzeko irizpide guztiei buruzko adierazpen orokorra».

   c) Baldin eta lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenera eta/edo baliabideetara jotzen badu Agiri honen 12. Klausulari jarraikiz, horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, zeinetan EKABaren II. zatiko A atalean («Operadore ekonomikoari buruzko informazioa») eta B atalean («Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa») eta III. zatian eskatzen den informazioa jasoko baita.

   d) Zenbait enpresaburu aldi baterako elkartuta aurkezten diren kasu guztietan, parte hartzen duen enpresa bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, zeinetan EKABaren II. zatitik V. zatira bitartean eskatzen den informazioa jasoko baita.

2. Baldin eta, **Karatularen 10. puntuari jarraikiz**, kontratua egikaritzeko gutxienez giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk atxikitzeko eskatzen bada, lizitatzaileek kontratua egikaritzeko giza baliabide eta/edo baliabide material horiek atxikitzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, Agiri honetan **IV. eranskin** gisa jaso den ereduaren arabera.

3. Aldi baterako elkarte batean lehiatu nahi duten enpresariek partaideen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, eta bakoitzak zenbateko partaidetza duen ere bai. Gainera, adjudikazioa ematen bazaie formalki aldi baterako elkarte bat osatzeko konpromisoa hartzen dutela ere utzi beharko dute jasota. Aldi baterako elkarte batean lehiatu nahi duten enpresariek betebehar solidarioa hartuko dute beren gain, eta enpresarien elkartearen izenean ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituena, harik eta kontratua amaitu arte, nahiz eta enpresek, garrantzi handiko kopuruak kobratu eta ordaintzeko, ahalorde mankomunatuak eman ahal izango dituzten.

4. Atzerriko enpresek kontratutik zuzenean zein zeharka sortzen diren gorabehera orotarako Espainiako jurisdikzio ordena guztietako epaitegi eta auzitegiak onartzen dituztelako adierazpena aurkeztu behar dute. Lizitatzaileari atzerriko jurisdikzioa badagokio, adierazpenean uko egin behar zaio.

OHARRA:

Erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du lizitatzaileei justifikazio dokumentu guztiak edo batzuk aurkez ditzaten eskatzeko, uste badu arrazoizko zalantzak daudela 1. puntuan adierazitako adierazpenaren indarrari edo fidagarritasunari buruz, edo prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa bada.

Aurrekoa gorabehera, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu base nazional batean agertzen bada enpresaren espediente birtual gisa, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema gisa edo aurrekalifikazio sistema gisa, eta aipatutako organoek datu horiek doan atzi baditzakete, ez ditu zertan aurkeztu toki horietan inskribatutako datuen egiaztagiriak edo bestelako dokumentuzko frogak.

2. gutun-azala. «BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO AGIRIAK»

Lizitatzaileek **Karatularen 11.2 puntuan** adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte gutun-azal honetan.

Lizitatzaileak kontu berezia izan beharko du gutun azal horretan sartu beharreko agiriak egitean, eta edukiari buruz adierazitako jarraibideetara egokitu beharko du. Era berean, ezingo da erreferentziarik egin, formulak erabiliz ebaluatzen diren irizpideei buruzko agirien inguruko alderdiak ezagutzera eman edo horretara bideratu dezaketenik.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak ezetsi eta prozeduratik kanpo utziko dira.

Halaber, erakunde kontratatzaileak egokitzat jotako egiaztapenak egin ditzake, edo beharrezkotzat jotako dokumentazio gehigarria eska dezake, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko.

Baldin eta, **Karatularen 12. puntuari** jarraikiz, kontratua egikaritzeko atxiki beharreko giza baliabideak baloratzen badira, eta kontratistak alde bakarretik aldatzen baditu kontratua egikaritzeko atxikitako pertsonak, langile horiek bereak edo azpikontratatuak diren gorabehera, erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du atxikitako pertsona horiek esleitutako lanean berehala jar ditzan eskatzeko edo, osterantzean, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezinezkoa bada, prestakuntza eta

esperientzia bera duten langile batzuez berehala ordezteko. Pertsona horiek erakunde kontratatzailearen berariazko baimena izan beharko dute.

3. gutun-azala. «FORMULA BIDEZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO AGIRIAK»

Lizitatzaileek formulak bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko agiriak aurkeztu beharko dituzte, Agiri honi **V. Eranskin** gisa erantsitako ereduaren arabera.

Erakunde kontratatzaileak 1., 2. eta 3. gutun-azaletan jasotako dokumentuen edukia egiazkoa den egiaztatu ahal izango du, hala adjudikazioa egin aurretik nola kontratua egin ondoren, eta ulertuko da enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak badira, kontratua deuseztatu daitekeela, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik.

14. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Adjudikatzeko irizpideak, dagokien haztapenarekin, **Karatularen 12. puntuan** adierazitakoak izango dira.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzorde baten laguntza izango du, zeina **Karatularen 13. puntuan** zehaztutako kideek osatuko baitute.

16. PROPOSAMENAK ZABALTZEA

Ebaluazio Batzordeak aurretiaz kalifikatuko du 1. gutun-azaleko dokumentazioa («Aurretiko betekizunak betetzeari buruzko agiriak»), garaiz eta behar bezala aurkeztu dena. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak hautematen baditu, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari akats horiek zuzendu ditzan.

Ondoren, 2. gutun-azala zabalduko da («Balio judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideei buruzko agiriak»), horretan jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratzeko.

Baldin eta balio judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideei formulak erabiliz ebaluatzen diren irizpideei dagokiena baino haztapen handiagoa esleitzen bazaie, **Karatularen 14. puntuan** adierazitako kideek osatutako Batzorde batek baloratuko ditu balio judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideak.

Ondoren, 2. gutun-azaleko dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. gutun-azala zabalduko da («Formula bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko agiriak»).

Nolanahi ere, 3. gutun-azala («Formula bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko agiriak») zabaldu aurretik, lizitatzaileei balio judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideei buruzko agiriak baloratzearen emaitza emango zaie.

Hori egin ondoren, «Formula bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko agiriak» izeneko 3. gutun-azaleko dokumentazioa irekiko da, berori aztertu eta baloratze aldera.

Betiere, 3. gutun-azala («Formula bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko agiriak») jendaurrean zabalduko da, Karatularen 11.1 puntuari jarraikiz proposamenak bitarteko elektronikoz aurkezten direnean izan ezik.

Baldin eta aipatutako 3. gutun-azala («Formula bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko agiriak») jendaurrean zabaltzen bada, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie 3. gutun-azala («Formula bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko agiriak») zabaltzeko eguna, ordua eta lekua. Informazio hori, gainera, erakunde kontratatzailearen kontratazio profilean argitaratuko da, gutxienez 48 ordu lehenago.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan jasotako kausaren batean dauden proposamenak, eta aurkeztutako proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, **Karatularen 12. puntuan** ezarritako adjudikazio irizpideen arabera segida beherakorrean sailkatuta, eta eskaintzarik hoberena identifikatuko du.

Lizitatzaile jakin bat kanpoan uztea erabakiz gero, erakunde kontratatzaileak berariaz jakinaraziko dio kanpoan utzitako lizitatzaileari.

Proposamena egin aurretik, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eska ditzake.

Baldin eta uste bada puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza oso txikia dela **Karatularen 12. puntuan** hala badagokio adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak SPKLren 149. artikuluan zehaztutako prozedurari jarraituko dio, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Adjudikazio proposamenak ez du inolako eskubiderik sorrarazten proposatutako lizitatzailearen alde erakunde kontratatzailearen aurrean. Nolanahi ere, Kontratazio Organoak ez badu kontratua proposamenaren arabera adjudikatzen, arrazoitu egin beharko du erabakia.

17. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Adjudikaziorako aukeratutako lizitatzailea hautatzeko, kontratazio-organoak bat etorri beharko du Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin, oro har. Bestela, Kontratazio Organoak arrazoitu egin beharko du proposamenetik aldentzeko erabakia eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egin beharko du.

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzordea onartzen duenean, erakunde kontratatzaileak hala eskatuta, eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita:

1. Eskaintzak aurkezteko azken epean erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak eta Agiri honen 12 Klausulan gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruz ezartzen diren betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, jarraian azaldutako moduan:

   Baldin eta proposamena aldi baterako elkartuta lehiatzen diren enpresariek egin badute, dokumentazio hori elkarteak barne hartzen dituen enpresa guztiei buruzkoa izan beharko da:

   (i) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak.

   - Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: haren jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eraketa-agiria edo eskritura, estatutuak edo sortze-egintzaren agiria, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatua.

   - Espainiakoak ez baina Europar Batasuneko beste estatu kide bateko herritarrak diren enpresarien jarduteko gaitasuna dagokion erregistroan inskribatuta egoteak frogatuko du, egoitza daukan estatuko legerian ezarritakoarekin bat etorriz edo, bestela, zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuta, aplikatzekoak diren Erkidegoko xedapenei jarraituz.

   - Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsi edo enpresako egoitzaren lurralde-esparruari dagokion Kontsuletxeko Bulegoaren txostena erakutsi beharko dute.

Txosten horretan egiaztatu beharko da enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela enpresa espainiarrei hango Administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan aipatutakoen pareko sektore publikoko ente, organismo edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan parte hartzeko, funtsari dagokionez modu berean.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, Nortasun Agiri Nazionala edo dagokion estatuko agiri baliokidea aurkeztu beharko da.

- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia bat aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritzako Erregistroan jasota agertu behar du, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan jasotakoaren arabera horrela eskatzen bada, edo, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan.

Agiri horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialean izena emanda dauden lizitatzaileek horietan inskribatuta egotea ziurtatzen duen indarreko ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahalko dute atal honetan (i) eskatutako dokumentazioaren ordez. Ziurtagiri hori Erregistroaren ardura duen letraduak eman beharko du. Inskripzioaren ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, non adieraziko duten agirian jasotakoa ez dela aldatu.

(ii) Agiri honen 12. Klausulan eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten agiriak.

- <u>Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa</u>. Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio bolumena honako hauen bidez egiaztatuko da:

    - Merkataritza Erregistroan onartu eta jasota dauden urteko kontuak, enpresaria erregistro horretan inskribatuta badago; osterantzean, inskribatuta dagoen erregistro ofizialean jasotako kontuen bidez egingo da. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabe dauden banako enpresariek beren inbentario

liburuen bidez eta Merkataritza Erregistroak legeztatutako urteko kontuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio bolumena.

- Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzailearen negozio bolumena adierazten duena.

- Kaudimen tekniko edo profesionala. Hala badagokio, eskatutako kaudimena azken hiru urteetan egindako zerbitzuen
- zerrenda baten bidez egiaztatuko da. Horretan, zerbitzu edo lan horien zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua) zehaztuko dira. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira egindako zrebitzu horiek; hartzailea subjektu pribatu bat denean, berorrek luzatutako ziurtagiriaren bitartez eta, halakorik ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez, prestazioa gauzatu duela egiaztatzen duten agiriekin batera.

  Baldin eta kontratista enpresa sortu berria bada, hau da, bost urte baino gutxiago baditu, haren kaudimen teknikoa egiaztatzeko SPKLren 89.1 artikuluaren b) letratik g) letrara bitartean aipatzen diren bideetako bat edo batzuk erabiliko dira, eta ez da inola ere aplikatuko apartatu horren a) letran zerbitzu kopuru jakin bat egikaritzeari buruz ezarritakoa.

(iii) Agiri honetan gehitutako **VI. Eranskineko** ereduaren araberako erantzukizunpeko adierazpena, non lizitatzaileak adieraziko baitu SPKLren 71. artikuluan kontratuak egiteko ezarritako debekuetako batek ere ez diola eragiten.

(iv) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean direla egiaztatzen duen frogagiria.

(v) Hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako betekizun espezifikoak betetzen direla frogatzen duten egiaztagiriak.

2. Hala badagokio, kontratuari atxikitzeko agindu diren giza baliabideak eta baliabide materialak benetan izatea egiaztatzen duten agiriak.

(i) Kontratua gauzatzeari begira eskaintzan jasotako giza baliabideei dagokienez, hautatutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Kontratua gauzatzeko atxikitako talde osoaren izenezko identifikazioa, baita haien curriculumei buruzko fitxak ere, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko:

1. Ikasketa titulu ofizialak.

2. Dagokion esparruko esperientzia.

3. Erakunde kontratatzaileak eskatzen duen beste edozein alderdi.

b) Giza baliabide horiek guztiak benetan erabilgarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Jakinarazten da, datu pertsonalen babesaren arloan aplikagarria den Estatuko eta Europar Batasuneko araudian jasotakoarekin bat etorriz, eta kontuan hartuta giza baliabideei buruzko dokumentazio horretan jasotako informazioaren izaera, (i) datu pertsonalok bildu eta erabiltzeak berekin ekarriko duela lizitatzaileak, tratamenduaren arduradun gisa, datuak tratatzea; eta (ii) klausula honetan ezarritakoa betez datuok erakunde kontratatzaileari entregatzea datu pertsonalen komunikazioa izango dela, tratamenduaren arduradunaren aldetik, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzaileak nahitaez bete beharko ditu datu pertsonalen babesari buruzko Estatuko eta Europar Batasuneko araudi aplikagarrian xedatu denetik dagozkion betebeharrak, aurreko paragrafoan datuen tratamenduari eta komunikazioari buruz esandakoari dagokionez. Bereziki, eta ezertan eragotzi gabe tratamenduaren arduradun gisa bete beharreko beste edozein betebehar, hautatutako lizitatzaileak, bere erantzukizunpean, interesdunen baimen informatua lortu beharko du datu pertsonalen komunikazioa ahalbidetzeko, eta behar bezala egiaztatu beharko du erakunde kontratatzailearen aurrean, hala eskatzen zaionean.

(ii) Kasuan kasuko kontratu espezifikoa gauzatzeari begira eskaintzan jasotako baliabide materialei dagokienez, hautatutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Kontratua egikaritzeko atxikitako baliabide materialen identifikazioa, baita eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak ere.

b) Baliabide material horiek guztiak benetan erabilgarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Erakunde kontratatzaileak egokitzat jotako egiaztapenak egin ditzake, edo beharrezkotzat jotako dokumentazio gehigarria eska dezake, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko.

3. Agiri honen 11. Klausulan zehaztutako behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

4. Hala badagokio, notario aurreko adierazpenen akta, baldin eta lizitatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeari begira, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, **II. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

5. Enpresen aldi baterako elkartea legez osatzearen ziurtapena, hala badagokio. Enpresa-elkartearen izenean ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, zeinak kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izango baititu.

Erakunde kontratatzaileak egokitzat jotako egiaztapenak egin ditzake, edo beharrezkotzat jotako dokumentazio gehigarria eska dezake, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak hautematen baditu, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea eman ahalko dio lizitatzaileari akats horiek zuzendu ditzan.

Eskatutako dokumentazioa ez bada adierazitako epean behar bezala aurkezten, edo aurkeztutako dokumentazioak zuzendu ezin diren akatsak edo omisioak baditu, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da eta, hala badagokio, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZ kanpo) zigor gisa. Ondoren, eskaintzen sailkapenean hurrengoa den lizitatzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio.

Kontratazio Organoak kontratua adjudikatuko du dokumentazio hori jaso eta bost egun baliodunen barruan, eta hiru hilabeteko gehieneko epean, proposamenak ireki diren egunetik kontatzen hasita.

Adjudikazioa Kontratazio Organoak erabakiko du, ebazpen arrazoitu bidez, eta hautagaiei eta lizitatzaileari jakinaraziko die, jakinarazpenak jasotzeko adierazi duten helbide elektronikoaren bidez; hala, erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA EGIN ETA FORMALIZATZEA

Kontratuaren formalizazioaren bidez burutuko da kontratua.

Kontratua dokumentu pribatu batean formalizatuko da, eta agiri horrek lizitazioaren baldintzak zehatz-mehatz beteko ditu. Kontratua formalizatzen den dokumentuan ezin izango da inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

Nolanahi ere, adjudikaziodunak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake, eta haren kontura izango dira horrek sortutako gastuak.

Kontratuak berekin badakar kontratistak erakunde kontratatzailearen kontura datu pertsonalak tratatzea, esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, administrazio-klausula zehatzen agiri honekin batera doan ereduaren arabera, VII. eranskin gisa, datu pertsonalen tratamenduaren euskarri diren zerbitzarien kokapen fisikoa eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak non emango diren identifikatzeko.

Ezingo da formalizazioa egin lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro artean.

Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, hamabost egun naturaleko epean argitaratuko da, kontratua erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean burutu ondoren.

Kontratua ez bada adierazitako epearen barruan formalizatu, adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla tartean, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZ kanpo) zigor gisa. Lehenbizi, behin betiko bermearen aurka kobratuko da zenbateko hori, ezertan eragotzi gabe SPKLren 71. artikuluaren 2) apartatuaren b) letran ezarritakoa. Halakoetan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzak sailkatu diren ordenari jarraikiz, Agiri honen 17. Klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta hamar egun balioduneko epea emango zaio aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du. Pertsona horrek, erakunde kontratatzaileak esleitu dizkion ahalmenen barruan, kontratua nola betetzen den gainbegiratuko du, eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela bermatzeko.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridikoa izan daiteke, erakunde

kontratatzaileari lotua edo kanpokoa.

Kontratistak derrigorrez bete beharko ditu kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak.

20. KONTRATUA EGIKARITZEA

Kontratua baldintza hauen arabera egikarituko da:

a) Kontratistak kontratuaren baldintzak beteko ditu, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan eta bere Karatulan, Aldaketa Proiektuan eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan ezarritakoaren arabera, bai eta, hura interpretatuta, erakunde kontratatzaileak kontratistari emandako jarraibideen arabera ere.

b) Kontratuak bete egin behar ditu indarreko lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak, bai eta lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloetan aplikatu behar direnak ere.

Testuinguru horretan, balio-iritzien arabera kuantifikatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa jasotzen duen 2. gutun-azalean, lizitatzaileek adieraziko dute zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei, enpresa berekoei edo azpikontratatutakoei, esleipendun izanez gero. Kontratistak adierazten duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa, esleipenaren ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Horrez gain, kontratua esleitu ondoren langile horiei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du kontratistak.

Kontratistak, kontratua gauzatzen duen bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

Atal honetan xedatutakoa betearazpen-baldintza berezia eta funtsezko betebeharra da SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoi bera ez betetzea izango da, erakunde kontratatzailearen borondatearen arabera.

c) Kontratistak hartuko ditu bere gain kontratua betetzearen arriskuak.

d) Erakunde kontratatzaileak edozein unetan eta edozein bide erabiliz kontrolatu, egiaztatu eta ikuskatu ahalko du kontratuan agindutako eginbeharrak behar bezala betetzen eta kontratua egokiro gauzatzen ari dela.

Horretarako, erakunde kontratatzaileak egokitzat jotzen dituen kanpo laguntzak eskatu ahal izango ditu, kontratuko betebeharrak behar bezala betetzen direla eta egindako lanen kalitate maila egokia dela egiaztatu edo ikuskatzeko.

Kontratistak erakunde kontratatzaileak kontratuaren xede den prestazioarekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak erraztu beharko dizkio, eta kostu gehigarririk gabe eman beharko dio behar duen laguntza guztia, baita kontratatutako zerbitzuekin lotuta dauden laneko, administrazioko edo beste mota bateko agirietarako sarbidea ere.

Kontratistak ezingo ditu oztopatu erakunde kontratatzaileak gauzatutako ikuskapen- eta kontrol-lanak.

Hala eta guztiz ere, erakunde kontratatzaileak edozein ez-betetze edo oztopo hautematen badu, zuzenean jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, eta hari egokituko zaio azken batean zerbitzua ematen duten langileak antolatu, gainbegiratu edo, hala badagokio, zehatzeko gaitasunak izatea.

e) Langile guztiak kontratistaren mende soilik egongo dira, eta harenak soilik izango dira enpresaburu izateari dagozkion eskubide eta betebeharrak. Hala, ezin izango zaio inolako erreklamaziorik egin erakunde kontratatzaileari, lan-harreman horien edo gainerako betebeharren ondorioz.

Horretarako, kontratistak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

Kontratistari dagokio, soil-soilik, baldintza-agirietan eskatzen diren titulazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten langileak hautatzea. Langile horiek kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldeko kideak izango dira, erakunde kontratatzaileak baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzeari kalterik egin gabe.

Kontratistak ahaleginak egingo ditu lantaldean egonkortasuna egon dadin eta lantaldearen osaeran izandako aldaketak puntualak izan daitezen eta justifikatutako arrazoien ondorio izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzearren, eta une oro emango dio horren berri erakunde kontratatzaileari.

Kontratistak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeaz arduratzen den lantaldeko langileen gainean enpresa orok duen zuzendaritza-ahalmena modu erreal, eraginkor eta jarraituan erabiltzeko betebeharra.

Zehazki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentzia kasuetan langileak ordezkatzea, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea, hala dagokionean, lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, eta enplegatutako eta enplegatutako alderdien arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.

Kontratistak bereziki zainduko du kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren jarduera kontratuaren xede gisa baldintza-agirietan mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten eginkizunetan neurriz kanpo jardun gabe egiten dutela.

Kontratistak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez, bere langile-plantillakoa, eta honako betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

a) Erakunde kontratatzailearen aurrean kontratistaren solaskide gisa jardutea, alde batetik, kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen arteko komunikazioa bideratuz, eta, bestetik, erakunde kontratatzailearen artekoa, kontratua gauzatzearen ondoriozko gaiei dagokienez.

b) Lana banatzea kontratua gauzatzeaz arduratzen diren langileen artean, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea kontratuari.

c) Lantaldea osatzen duten langileek agindutako eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.

d) Kontratua gauzatzera atxikitako langileen opor-erregimena antolatzea; horretarako, kontratista behar bezala koordinatu beharko da erakunde kontratatzailearekin, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzearren.

e) Kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran noizbehinka edo modu iraunkorrean izandako aldaketen berri ematea erakunde kontratatzaileari.

Kontratista izango da erantzule bakarra kontratua gauzatzen lan egiten duten langileekin (bertakoak nahiz azpikontratatuak) lotutako edozein istripu edo

erreklamazioren aurrean, judiziozkoak nahiz judizioz kanpokoak izan, eta erakunde kontratatzaileak ez du bere gain hartuko kontratistak zuzenean edo zeharka hartutako inongo lan-erantzukizunik (lan-segurtasun, -higiene eta -osasunari buruzkoa barne), Gizarte Segurantzakorik edo erantzukizun fiskalik. Era berean, kontratistak kontratua gauzatzean sortutako istripuen ondoriozko erantzukizunak soilik hartuko ditu bere gain.

f) Kontratistak nahitaez bete beharko ditu aplikagarriak zaizkion arau hauetan egokitzen zaizkion betebeharrak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta kontratuaren indarraldian aplikagarria den datuak babestearen arloko Estatuko zein Europar Batasuneko edozein arau, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta erabakiz, tratamendu horren arduradun modura tratatzen dituen datu pertsonalekin lotuta.

g) Betebehar hori ezartzen da, ezertan eragotzi gabe **Karatularen 17. puntuan** erakunde kontratatzaileak datu pertsonalak tratatzearen inguruan berariaz ezarritakoa.

h) Kontratistak, hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 15. puntuan** jasotako baldintzak bete beharko ditu.

21. KONTRATUZKO BETEBEHARRAK

Hauek izango dira kontratu-betebeharrak:

a) Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, klausuletan eta plegu honetan, karatulan eta preskripzio teknikoen pleguan ezarritakoari eta kontratistari kontratuaren arduradunak ematen dizkion jarraibideei zorrotz lotuta..
b) Indarrean dauden eta lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea, klausula-orri hauen 20. klausularen b) letran jasotako moduan. Testuinguru horretan, kontratistak, kontratua gauzatzen duen bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.
c) Kontratua egikaritzeko giza baliabideak (bertako langileak edo azpikontratatutako enpresakoak erabiliz) eta/edo kontratistaren eskaintzan konprometitutako baliabide materialak atxikitzea.

d) Lanak egiteko behar diren lizentzia eta baimen guztiak lortzea.

e) Kontratuaren arduradun bat izendatzea, zuzendaritza- eta antolaketa-ahalmenekin. Arduradun hori izango da erakunde kontratatzailearekin harremanetan jarriko den solaskide bakarra, eta hari egokituko zaio kontratuaren xede diren zerbitzuen zuzendaritza, eta enpresa esleipendunak kontratua gauzatzera atxikitako gainerako pertsonei zuzenean emango dizkie laneko aginduak eta jarraibideak.
Pertsona hori arduratuko da kontratua gauzatzean langileen legez kanpoko lagapena eragin dezakeen egoerarik ez dagoela zaintzeaz edo erakunde kontratatzailearen eta kontratua gauzatzeari atxikitako kontratistaren arteko lan-harremanei buruzko adierazpena eragin dezakeen egoerarik ez dagoela zaintzeaz.

f) Langileei agindu, lana egiteko irizpide eta jarraibide guztiak ematea, eta erakunde kontratatzailea lan-harreman horietatik guztiz kanpo egotea eta, nolanahi ere, harreman horietan eraginik ez izatea. Era berean, kontratistari dagokio, modu esklusiboan, langileen lan-ordutegia, egon daitezkeen ordutegi-lizentziak, baimenak, oporrak edo enplegatzailearen ahalmenen beste edozein adierazpen zaintzea. Hala ere, kontratistaren erantzukizun esklusiboa da, pleguan ezarritako moduan, zerbitzua behar bezala betetzen dela ziurtatzea.

g) Zerbitzuak ematea, unean-unean aplikatzekoa den araudi sektorialean xedatutakoaren arabera. Ondorio horietarako, bai kontratistak bai kontratistaren langileek unean-unean indarrean dagoen araudiak eskatzen duen edozein betebehar betetzen dutela egiaztatzen duten ziurtagiri guztiak izan beharko dituzte.

h) Behin betiko bermea mantendu eta birjartzea.

i) Gutxienez kontratua gauzatzen den bitartean, Agiri honen 25. Klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldura eta aseguru propioak kontratatu edo mantentzea.

j) Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz hirugarrenek jasandako kalte-galerak ordaintzea.

k) Kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko erakunde kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak ematea, ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe, hala nola lan-bileretara edo informazio-bileretara joatea. Betebehar horri kontratua amaitu arte eutsiko zaio.

l) Greba-kasuan, zerbitzuak betetzea. Zerbitzu horiek bermatuko ez balira, erakunde kontratatzaileak ahalmena izango luke zerbitzuak estaltzeko

behar diren kontratuak sustatzeko, eta fakturaziotik kontratu horien zenbatekoa kenduko litzateke.

Grebak irauten duen bitartean, benetan emandako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.

m) Langileak ordezkatzea, egiten duen lana eta haren iraupena edozein izanda ere, baldin eta bere eginkizuna behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez betetzen ez badu, gaituta ez badago, zerbitzuak betetzeko ardura gutxi badu edo kontratuaren martxa onerako kaltegarriak diren ekintzak egiten baditu. Hori guztia gehienez ere hogeita lau orduko epean, erakunde kontratatzaileak kontratuaren arduradunari edo solaskideari horretarako egiten dion errekerimendutik zenbatzen hasita. Langileen ordezkapenek ez dute inolako erantzukizunik ekarriko erakunde kontratatzailearentzat, kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

Langile horiek, lanean hasi aurretik, dagokion baimena dutela egiaztatu beharko dute.

n) Langileak berehala ordezkatzea, gaixotasun-bajek, oporrek, baimenek, lizentziek, istripuek eta abarrek eragindako lan-absentziak estaltzeko, kontratatutako zerbitzuen prestazio eraginkorra eta jarraitua bermatuz.

o) Datu pertsonalen babesaren arloan bete beharreko betebehar guztiak betetzea eta betetzen direla behar bezala egiaztatzea, Agiri honetan, Karatulan eta/edo datu pertsonalen babesaren arloan aplikagarria den Estatuko eta Europar Batasuneko araudian jasotakoarekin bat etorriz.

p) Hala badagokio eta berariaz **Karatularen 16. puntuan** jasotako betebeharrak betetzea.

SPKLren 211.1.f) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, funtsezko kontratu betebehartzat hartuko dira **Karatularen 16. puntuan** jasotako betebeharrak eta, beraz, horiek ez betetzea kontratua amaitzeko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

22. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistak bete egin beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, eta datu pertsonalak babesteari buruzko beste edozein araudi nazionaletan eta Europar Batasunekoetan, kontratuaren indarraldian aplikagarria denean bere jardueren esparruan eta bere kontura eta erabakiz egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik, tratamenduaren arduradun gisa.

Karatulako 17. puntuan erakunde kontratatzailearen konturako datu pertsonalen balizko tratamenduari buruz berariaz ezartzen denari kalterik egin gabe ezartzen da betebehar hori.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Ezertan eragotzi gabe informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian jasotakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitatearen eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioaren inguruan jasotako xedapenak, erakunde kontratatzaileak ezin izango du zabaldu lizitatzaileek eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat izendatu duten informazioa. Konfidentzialak dira, besteak beste, sekretu teknikoak edo komertzialak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio, dela lizitazio prozedura honetan, dela geroagoko beste batzuetan.

Kontratistak isilean gorde beharko du kontratua egikaritzearen ondorioz eskuratu dezakeen informazioa, baldin eta Agirian, Aldaketa Proiektuan edo kontratuan isilean gorde beharrekotzat jo bada, edo, informazio motagatik isilean gorde beharrekoa bada.

Konfidentzialtasun betebehar hori **Karatularen 18. puntuan** adierazitako epean mantenduko da.

24. ERANTZUKIZUNA

Kontratistak berak hartu beharko du egiten dituen lanen eta ematen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, eta, zer edo zer egin gabe utzi duelako, edo akatsak direla-eta, metodo traketsak direla-eta, edo amaiera txarra dela-eta erakunde kontratatzaileari edo beste inori beste ondoriorik eragin bazaio, erantzukizuna kontratistarena izango da.

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko bete beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordaina ematea.

25. ASEGURUAK

Kontratistak **Karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak kontratatuko ditu kontratu horrek irauten duen epe osorako, bere kontura, horretan adierazitako moduan eta baldintzetan.

26. JABETZA INTELEKTUAL ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratista behartuta egongo da baimendutako iturrietatik eta bere kontura bakarrik, ekipamendu informatikoak (hardwarea eta softwarea) edo beste edozein motatako ekipo eta/edo bitarteko osagarri erabiltzeko eta/edo ustiatzeko edozein lizentzia eta eskubide lortzera, baldin eta, agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera, lizentzia eta eskubide horiek atxiki, ekarri eta/edo mantendu behar baditu kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko.

Era berean, kontratazio honi erabat aplikatuko zaio SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa. Hori horrela izanik, kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzearen ondorioz erakunde kontratatzailearentzat sortu, asmatu, diseinatu edo garatu den eta jabetza intelektual eta/edo industrialeko eskubideen bidez babes daitekeen edozein emaitzaren gaineko jabetza, oso-osorik edo edozein fasetan, erakunde kontratatzailearena izango da esklusiboki. Hori guztia, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo Patenteei buruzko uztailaren 24ko 24/2015 Legean ezarritakoaren arabera kontratistari dagozkion egile-eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa aitortua izateko eskubidea alde batera utzi gabe. Entitate kontratatzaileak behar bezala bete beharko ditu eskubide horiek.

Ondorioz, eta karatulako 19. puntuan berariaz ezarritakoari kalterik egin gabe, kontratistak erakunde kontratatzaileari ziurtatu beharko dio kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitza modu baketsuan erabiliko duela, eta, hala badagokio, kontratuaren parte den edozein elementuren gaineko lizentziak eta eskubideak legitimoki eta baimendutako iturrietatik lortzera behartuko du, eta entregatzeko unean adieraziko du emaitza horren gainean ez dagoela inolako konpromiso edo kargarik kontratazio honen ondorioz erakunde kontratatzaileari dagozkion eskubideen aurka egiteko.

Nolanahi ere, kontratista izango da kontratutik kanpoko hirugarrenek Jabetza Intelektual eta/edo Industrialari buruz egin ditzaketen erreklamazioen erantzule, honako hauei dagokienez:

- Zerbitzuak ematean, jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubideen bidez

babestuta dauden materialak, tresnak eta gainerako tresnak erabiltzea.

- Kontratazioaren xede diren zerbitzuen emaitza eta/edo emaitza horren parte den edozein elementu.

Hori guztia kontuan hartuta, kontratistak erakunde kontratatzaileari kalte-ordaina eman beharko dio, kontzeptu horiei buruzko erreklamazioen ondorioz berari sor dakizkiokeen kalte eta galera guztiengatik.

Adierazitako guztitik eratorritako ordainsaria, hala badagokio, baldintza-agiri honetako 7. klausulan ezarritako kontratuaren prezioan sartuta dagoela ulertuko da.

27. ZIGORRAK

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, karatulako 21. puntuan ezarritako kasuren batean erori bada, entitate kontratatzaileak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, orri hauetako 33. klausulan ezarritakoaren arabera, edo kontratua gauzatzen jarraitzea. Azken kasu horretan, karatulako 21. puntuan adierazitako zigorrak sortuko zaizkio erakunde kontratatzaileari, dagozkion kalte-galeren kalte-ordainez gain.

Ez-betetzeak irauten duen bitartean kontratua gauzatzen jarraitzea aukeratzen bada ere, erakunde kontratatzaileak edozein unetan aukeratu ahal izango du kontratua suntsiaraztea, lehen aipatutako ondorioekin.

Zigorrak kontratistari egin beharreko guztizko ordainketetatik edo ordainketa partzialetatik kenduko dira, edo bermetik, aurrekoetatik kendu ezin direnean, eta dagokion erreklamazioaren xede izango dira bermea gainditzen duten zenbatekoan.

Nolanahi ere, kontratua suntsiaraztea nahiz kontratua jarraitzea aukeratzen badu, erakunde kontratatzaileak bere kabuz erabaki ahal izango du kontratua beharrezkotzat jotzen duen denboraz jarraitzea, bere edo hirugarrenen bitartekoen bidez, eta bi kasuetan jarraipen horren kostua kontratistari jasanaraziko dio, ezertan eragotzi gabe kalte-galerengatiko ordainak eta Klausula honetan jasotako gainerako ondorioak.

28. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluan jasotako kontratistaren ondorengotza kasuak gorabehera, kontratuaren lagapen bidez soilik egin ahal izango da kontratuaren aldaketa subjektiboa, Klausula honetan ezarritako mugen barruan eta aukera hori **Karatularen 22. puntuan** berariaz jasota badago.

Lagapenak egiteko SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan eskatutako baldintzak bete beharko dira, hau da:

a) Kontratazio Organoak lagapena baimentzea, aldez aurretik eta berariaz, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako moduan. Baimen eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da, eta epe hori igaro ondoren baimena eman dela ulertuko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatuta izatea, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitako baldintzetan.

c) Lagapen hartzaileak gaitasuna izatea sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko, eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala izatea, eta kontratatzeko debekurik ez izatea, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitako baldintzetan.

d) Lagapena kontratuaren adjudikaziodunaren eta lagapen hartzailearen artean formalizatzea eskritura publiko bidez, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitako baldintzetan.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, Klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoaren arabera, hala badagokio, **Karatularen 23. puntuan** adierazitako prestazioak izan ezik.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio Kontratazio Organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hastean, azpikontratatzeko asmoa duela. Idazki horretan, azpikontratatu nahi duen prestazioaren zatia eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak zein diren adierazi beharko du, eta behar bezala justifikatu beharko du azpikontratistak gaitasuna duela kontratua gauzatzeko, aintzat hartuta dituen elementu teknikoak, giza baliabideak eta esperientzia; gainera, egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluaren arabera.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio Kontratazio Organoari kontratu nagusia gauzatzen den bitartean informazio horrek izandako edozein aldaketa, bai eta azpikontratista berriei buruz beharrezkoa den informazio guztia ere.

Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu zatia egiteko sailkapen egokia badu, hori jakinaraztea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak hartu behar badira, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiarekiko betebeharra soilik izango dute, eta hark, beraz, bere gain hartuko du kontratuaren gauzapenaren erantzukizun osoa erakunde kontratatzailearen aurrean, Agiriak eta kontratuaren baldintzak hertsiki beteta, barne hartuta SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharrak, bai eta SPKLren 202. artikuluaren 1. apartatuaren azken paragrafoan aipatzen den betebeharra ere, zeinaren arabera Espainiako eta Europar Batasuneko araudien mende egongo baita datu pertsonalak babestearen arloan.

Erakunde kontratatzaileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuen berri izateak ez du kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa aldatuko.

SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera ordainduko zaie azpikontratistei eta hornitzaileei, eta ordainketa horiek artikulu horietan ezarritakoaren arabera egiaztatuko dira.

30. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratazio organoak kontratua aldatu ahal izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan jasotako kasuetan.

Gainera, Kontratazio Organoak kontratua aldatzeko, beharrezkoa izango da aukera hori berariaz agertzea **Karatularen 24. puntuan**, eta apartatu horretan aurreikusitako moduan eta baldintzetan aldatuko du.

Kontratuaren aldaketek ezin izango dute kontratuan jaso ez den unitate-preziorik ezarri.

Kontratuan aldaketak egiteko, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

31. JASOTZEA ETA BERMEALDIA

Kontratua beteta egongo da kontratistak prestazioa osorik gauzatu badu, betiere, kontratuko baldintzen arabera eta erakunde kontratatzailearen gogara.

Egin beharreko lanak amaitu eta instalazioak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu ondoren, instalazioaren harrera ekitaldia egingo da, bai eta dagokion akta ere. Une horretan, erakunde kontratatzaileak hartzeko moduan dagoen ala ez eta

ezarritako preskripzioak betetzen dituen erabakiko du, eta, hala badagokio, behar diren jarraibideak emango zaizkio kontratistari, jasotzean hautemandako akatsak zuzentzeko edo hitzartutakoaren araberako zerbitzu berria gauzatzeko.

Kontratistari egotz dakizkion akats edo hutsen ondorioz, egindako lanak ez bazaizkio kontratatutako prestazioari egokitzen, erakunde kontratatzaileak uko egin ahal izango dio prestazioari, eta, horrela, ordaintzeko betebeharretik askatuta geldituko da, edo ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du, hala izan bada.

Hori guztia, ezertan eragotzi gabe 26. Klausulan ezarritakoa, eta erakunde kontratatzaileak dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, baita berandutzeagatik, kontratatutako prestazioak oker gauzatzeagatik eta/edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeagatik sortutako kalte-galeren ordaina ere.

Bermealdia **Karatularen 25. puntuan** dago ezarrita.

Baldin eta aipatutako bermealdia amaitu baino lehen egindako lanetan akatsik edo hutsik aurkitzen bada, kontratistari erreklamazioa egiteko eskubidea edukiko du Kontratazio Organoak, egokiak ez diren ondasunak berriro hornitu diezazkion, edo ondasunok konpondu diezazkion, hori aski bada.

Bermealdia amaitu eta erakunde kontratatzaileak ez baldin badu Klausula honetan aipatutako erreparorik batere egin edo halako ezer salatu, kontratista emandako prestazioaren erantzukizunetik aske geratuko da.

32. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta kontratistari SPKLren 208.2 artikuluan jasotako kalte-galerak ordaintzen badizkio. Hori dela eta, berariaz ezartzen da aplikatzekoa dela.

33. LAN-KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua berori betetzean edo adostutako suntsiarazpen bidez azkenduko da, jarraian araututakoaren arabera.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero:

a) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea.

b) Kontratista entregaren epea betetzen berandutzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, betebehar horiek halakotzat jo badira.

e) Prestazioa hasieran itundutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, kontratua Agiri honetan jasotakoaren arabera aldatu ezin denean.

f) Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratistak bertan parte hartzen duten langileei ez ordaintzea, edo langile horientzat aplikagarriak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea, kontratua gauzatzen den bitartean, hori ere.

g) Oro har, kontratuko betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan jasotakoaren arabera.

h) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 306. artikuluan kontratua suntsiarazteari buruz ezarritako arrazoiak, berariaz aplikatzekoak direnak; hauek dira:

    1. Zerbitzua hasi baino lehenago atzera egitea edo hasiera etetea, erakunde kontratatzaileari leporatu dakizkiokeen arrazoiak direla medio, lau hilabete baino gehiago, kontratuan entregarako jarrita dagoen egunetik kontatzen hasita.

    2. Zerbitzua hasi ondoren atzera egitea edo Zerbitzua zortzi hilabete baino gehiago etetea, erakunde kontratatzaileak erabakita.

Klausula honetan jasotako edozein suntsiarazpen-kasutan, kontratua automatikoki suntsituko da, eta horretarako betekizun bakar bat egongo da: erakunde kontratatzaileak hori erabaki duela esanez jakinarazpen fede-emailea helaraztea kontratistari.

Jakinarazpen hori jaso ondoren, kontratistak berehala entregatu beharko dizkio erakunde kontratatzaileari kontratatutako prestazioak gauzatzeko ordura arte prestatu dituen dokumentu guztiak, bai eta kontratuaren ondorioz sortutako gainerako dokumentazio edo informazio guztia ere, erakunde kontratatzaileak erabilitako eta kontratistari emandako dokumentuekin batera, eta dokumentu horiek guztiak erakunde

kontratatzailearen jabetzakoak izango dira hortik aurrera.

Hori guztia, ezertan eragotzi gabe dagokion kontratuaren ondorengo likidazio ekonomikoa, jarraian xedatutakoaren arabera.

Klausula honetan jasotako arrazoiengatik kontratua suntsiarazteak eragindako erantzukizun ekonomikoak, bai eta legez egotz daitezkeen beste edozein ere, kontratua bertan behera utzi ondoren ordainduko dira, eta ez dira eragozpena izango erakunde kontratatzaileak kontratua amaitzeko.

Suntsiarazpen-kasu guztietan, kontratistak eskubidea izango du, printzipioz, benetan egin dituen onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoigatik suntsiarazten bada, erakunde kontratatzaileak, kalte-galeren ondorioz dagozkion edozein ordainketaz gain, **Karatularen 26. puntuan** adierazitako zenbatekoa jasoko du, metatze bidez. Bi zenbatekoak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaindu beharreko prezioari kenduko zaizkio eta, hala badagokio, dagokion erreklamazioa egingo da soberakinari buruz.

Aurrekoa gorabehera, berariaz adierazten da SPKLren 307. artikuluaren 2. eta 3. apartatuak aplikatuko direla, hau da:

a) Klausula honen h.1 letran jasotako suntsiarazpen-kasuetan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazioaren prezioaren % 3ko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea baino ez du izango (BEZ kanpo).

b) Klausula honen h.2 letran jasotako suntsiarazpen-kasuetan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, etekin industrial gisa egin gabeko zerbitzuen kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 6 jasotzeko eskubidea izango du (BEZ kanpo).

Azkenik, kontratua erakunde kontratatzailea eta kontratista ados jarrita suntsiarazi ahal izango da; halakoetan, alde batekoen eta bestekoen eskubideak elkarren artean balio osoz onartutakora egokitu behar dira.

34. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da eta, prestaketari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen eta Aldaketa Proiektuaren bidez eraenduko da. Adjudikazioari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen eta Aldaketa Proiektuaren bidez eraenduko da, eta, horretan jaso ez denari dagokionez,

SPKLn horretarako ezarritako arauen bidez (sektore publikoko erakundeek egindako erregulazio harmonizatuko kontratuetarako, baldin eta botere adjudikatzailea badute eta ez badira Administrazio Publikoa).

Kontratuaren ondoreei eta azkentzeari dagokienez, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta Aldaketa Proiektuak eraenduko dute kontratua eta, horietan jaso gabeko arloetan, zuzenbide pribatuko arauek. Nolanahi ere, kontratuari aplikatzekoak izango zaizkio SPKLren «Ondoreak eta Azkentzea» 319. artikuluan ezarritako arauak.

Horrez gain, SPKL eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorra onartzen duena, aplikatuko dira, Agiri hau berariaz testu arauemaile horiei buruz ari den gai guztietan.

Nolanahi ere, kontratuak Estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete beharko du datu pertsonalen babesari dagokionez.

35. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du kontratuaren prestakuntzari, adjudikazioari eta aldaketei buruzko auziak ebazteko eskumena, azken horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen denean, aldaketa horrek beste adjudikazio baten xede izan behar zuela ulertzen denean.

Behar izanez gero, errekurtsoa jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibilak izango du kontratuaren ondoreei eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena, Klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak izan ezik.

I. Eranskina. Abal eredua.

[...] entitateak (kreditu-entitatearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), [...] IFK eta jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako […] helbidea dituenak, eta haren izenean, [...](e)k (ahaldunen izen-abizenak), egintza hau egiteko behar besteko ahalordearekin, agiri honen behealdean aipatutako ahalorde askiespenari jarraikiz, ABALA ematen dio: [...](r)i (abaldunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena), zeinak [...] IFK baitu, [...](r)en aurrean, [...] euroko zenbatekoan, [...] kontratuaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartu duenak, bere 56.2 artikuluan jasotako betekizunak betetzen dituela. Obligaziodun nagusiarekiko betebehar solidarioa du abal honek, esklusio- eta banaketa-onurari berariaz uko eginez, eta […]ek egindako lehen agindeian ordaintzeko konpromisoa hartuz.

Abal hau indarrean egongo da […](e)k berori kitatu edo itzultzeko baimena eman arte.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]

II. Eranskina. Notario aurreko adierazpenen akta eredua, eskatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeari begira, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duenerako.

[OHARRA: Soilik aurkeztu beharko da lizitatzaileak eskaintzarik hoberena aurkeztu badu eta, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeari begira, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu. ***Hirugarren erakundeak bete behar du****]*

[...] jaunak/andreak, [...] NANa duenak, [...] enpresaren legezko ordezkari gisa (IFK: [...]), adierazten du behar bezala ezagutzen duela zer baldintza dituen [...] lizitatzailea (enpresa lizitatzailearen izena) aurkezten den lizitazioak, [...] kontratatzekoak, eta adierazten du, adjudikaziodun gisa onartzen badute, borondate ezeztaezina duela kontratu hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak lizitatzaile horren esku jartzeko, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan ezarritakoa berariaz onartuta, eta […](e)k berariaz baimendu beharko du hura ordeztu edo aldatzea.

Idazki hau […](e)n aurkezteak konpromiso hori onartzen dela esan nahi du, lizitatzailea adjudikaziodun suertatzen den kasurako.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]

III. Eranskina. Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).

[OHARRA: Kontratatzailearen profilean lortu ahalko da EKAB eredua, pdf formatuan zein xml fitxategian]

IV. Eranskina. Giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN zenbakia dituenak, norberaren izenean edo […] ordezkatuz, zeinak […] helbidea eta […] NAN zenbakia dituen, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik, […] lizitazioaren berri izanda, honen bidez

ADIERAZI DU:

Konpromisoa hartzen duela, adjudikaziodun gisa onartzen badute, kontratua egikaritzeari atxikitzeko kontratazio hori arautzen duen Karatularen 10. puntuan eskatzen diren gutxieneko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko.

Eta horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak izan ditzan, giza baliabideak atxikitzeko konpromiso hau igortzen du, [...](e)n, [...](e)ko [...]aren [...](e)(a)n.

[Sinadura]

V. Eranskina. Formula bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko proposamena.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN zenbakia dituenak, norberaren izenean edo […] ordezkatuz, zeinak […] helbidea eta […] NAN zenbakia dituen, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik, lizitazioaren berri izanda, […] prozeduraren bidez, […] kontratatzeko, agiri honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. […] kontratua betetzeko konpromisoa hartzen duela, baldintza hauen arabera:

   - Eskainitako urteko prezioa: ……..euro (BEZ barne), honela banakatuta:

     - ……. euro (BEZ kanpo).

     - ……. euro (BEZ).

   - Berdintasuna:

     Konpromisoa hartzea azken 12 hilabeteetan kontratua gauzatuko duten giza baliabideek gutxienez 2 orduko prestakuntza jaso dutela. [...] BAI/[...] EZ

   - Ingurumena:

   Kontratua gauzatzeko konpromisoa, ekipo elektroniko eta teknologiko propioak erabiliz, kontratu hau gauzatzeko ekipo berriak erosi beharrik gabe, hondakin elektronikoak gutxitzeko eta gailuen bizitza baliagarria luzatzeko. [...] BAI/[...] EZ

2. Kontratua arautzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen duela, eta berariaz eta erabat onartzen duela.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]

VI. Eranskina. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN zenbakia dituenak, norberaren izenean edo […] ordezkatuz, zeinak […] helbidea eta […] NAN zenbakia dituen, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik, lizitazioaren berri izanda, […] prozeduraren bidez, […] kontratatzeko, agiri honen bidez

ADIERAZTEN DU

Lehenengoa.- Eskaintza hau aurkeztu den egunean ez duela kontratatzeko debekurik, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak, bere 71. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bigarrena.- Berariaz onartzen duela erakunde kontratatzaileak gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, adjudikazio- eta gauzatze-prozesuaren (adjudikaziodun bihurtzen bada) ondoriozko datu guztiei, prozesua amaitu arte.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]

VII. eranskina. Zerbitzariak non dauden eta zerbitzariekin lotutako zerbitzuak non emango diren adierazteko eredua

[...] jaunak/andreak, [...] n helbidea duenak eta [...] NAN zenbakia duenak, bere izenean edo [...] ren ordezkari gisa, [...] (e) n helbidea duenak eta [...] NAN edo IFK zenbakia duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa du, berariazko klausula administratiboen pleguan ezarritako betebeharrak betetze aldera, honako honen bidez:

ADIERAZTEN DU

1.- Hurrengo taulan, kontratua gauzatzetik eratorritako erakunde kontratatzailearen konturako datu-tratamenduari euskarria emango dioten zerbitzarien kokapena eta zerbitzariekin lotutako zerbitzuak non emango diren identifikatzen da:

ZERBITZARIEN KOKAPENA
ZERBITZARIEI LOTUTAKO ZERBITZUAEN EMATEKO LEKUA

2.- Deklarazio honetan emandako informazioa kontratuan zehar aldatzen bada, nahitaez jakinarazi beharko duela.

[...] (e) n, [...] (e) ko [...] (a) n.

[Sinadura]